

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2023ko ekainak 22 · 1276. zenbakia

SAN JUAN JAIAK EZTANDA EGITEKO ZAIN



EUKi

www.euki.com
943 20 42 91

LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA

Sanjuan zoriontsuak





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgia,
Periodontizian, Implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikari Diplomaturia,
Madrido Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikari Diplomaturia,
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza,
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Poesia-Musika Gauaren 10. edizioa egin zen barixakuan, Ibarkurutzeko iturrian. Maite Lorenzok sustatutako ekintzan hogeita hamar poeta baino gehiagok hartu zuten parte, eta Alberto Egia, Javi Alzola eta Jurgen Landa musikarien laguntza izan zuten.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Posta bidezko botoa

Eibarko Correoseko egoitzako atarian zain nago, ekainaren 16a da, ostirala, goizeko 8:20. Ateak 8:28an zabaldu dizkigute, txanda eskatu eta posta bidezko bozka egiteko eskaera orria eskatu eta bete dut. "Bozka emateko aukera noiz iritsiko zait etxera?" galdetzen diot leihatilako langileari. "Uztailaren 10etik aurrera jasoko duzu eskaeran aipatu duzun helbidean" erantzuna. "Baina, uztailaren 9tik aurrera ez nago Eibarren, Portugalen egongo naiz oporretan, horregaitik etorri naiz hain zuzen ere postaz bideratzera nire bozka!". Langilea niri begira. "Egun on bat izan dezazula" esan, langileaz agurtu eta lanera abiatu naiz.

Handik gutxira, 10:00etan telefonoz hotsegin diet eta ia posta bidezko eskaera ezeztatzerik bazuten galdetu diet. "Ezin dugu zure eskaera ezeztatu, jadanik tramitatuta dagoelako" langilearen erantzuna. "Orduan ez bozkaz, ez presentzialki hauteskunde egunean, uztailaren 23an, ez dut bozkatzeko aukerarik?" nire galdera. "Ez. Eskaera handia izan dugunez, uztailaren 5etik aurrera eskaeran aipatu duzun helbidera bidaliko zaizu bozkatzeko aukera, baina lehenek tramitatu dutenei lehenago iritsiko zaie, eta zuri ziur aski uztailaren 10etik aurrera. Beraz, helbide horretan presentzialki jaso behar denez, ez bazaude ezingo zenueke bozkatu" erantzuna.

"Egun on bat izan dezazula eta animo zuentzat ere", agurtu dut telefonoz Correoseko langilea.

Edu Uribe

Zergatik ez lagundu elkarri?

T. Etxebarria 5ean kokatutako loradendako jabea naiz. Hiru laguneko taldea gara, 2019ko otsailetik lan egiten. Ordaintzen dugun errenta 1.800 eurokoa da. Hala ere, urte onak izan ditugu (pandemia tartean izanda ere). Erreformak, dekorazioa eta altzari-salmenta arloan ere egiten dugu lan. Esker hitzak besterik ez ditugu gure bezeroentzat, zeozer bagara eurei esker delako, eta bidea egin dugu Eibarren, Debabarrenean eta EAeko beste hainbat tokitan.

Kontratu amaizteak eta lokalaren jabearekin izandako desadostasun ekonomikoek tokiz aldatu eta lokal berri batean apostu egitera eraman gaitu (lehen Ecuador bidaiak zegoen Ego-gain 2an), errenta ere txikiagoa baita. Lokal hori atondu eta egokitzen dihardugu egun, gure bezeroek merezi duten tamainako inbertsioa eginez.

Baina... goazen harira! Auzoko bateren batek salatu gaitu pegorarako pausua zailtzeagatik. Eta ekainaren 15ean Udalak 600 euroko isuna ezarri digu. Honakoak dira gure galderak: Zertarako salaketa hau pare bat astetan hemendik bagoaz? Non dago hainbestetan aipatutako dendariari eman beharreko laguntza? Benetan gabiltza herriko denda txikien alde, ala frankizia guztiei zabaldu behar dizkiegu ateak? Zergatik ez da inor guregana etorri kexatzera, auzokoekin berba egiteko ahalmena ere galdu dugu dagoeneko? Udalak horrelako isunik jarri dezake aurrez deitu edo abisatu barik? Gure produktua kanpora atera beharrean gaude, barruan hondatu egiten delako. Donostia, Tolosa edo Zarautzen, zati handiagoa hartuta ere, ez dute horrelako arazorik.

Gogoia ematen du amore eman eta negozioa ixteko. Izango da lorategiak arautegia ez duela errespetatzen dioenik. Eta arrazoa du! Baina beste komertzio eta tabernak bezalaxe. Edo tabernetako terraza guztiak kendu behar ditugu? Guk ez ditugu inoiz salatuko, ondo daudelako dauden moduan.

Gure lana eskertu duten ehun lagunetik, badira bat edo bi molestatzen dugula uste dutenak. Ondo da, isuna ordainduko dugu eta burua tente dugula joango gara. Zaila egiten da Eibarren denda bati eustea, batez ere dendari, herritar eta Udalak elkarri laguntzen ez badiogu.

Ane Ojanguren Alberdi

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORBEL → Arbolen horria, baina lurrera jausitakoa. "Pare bat burdi orbel ekartzen genduazen guk Arrartetik".

ORBELTZA → Haizeak batutako orbel pilo. "Sakon hartan batutako orbeltza ondo etorriko jaku ardixeri azpikax egittek".



Farmaziak

EGUENA 22
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ZAPATUA 24
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 26
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
MARTITZENA 27
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Dionisio Carrasco Martinez.** 85 urte. 2023-06-13.
- **Eladio Ruiz Gutierrez.** 74 urte. 2023-06-15.
- **Santiago Etxebarria Alberdi.** 91 urte. 2023-06-17.
- **Francisco Castelos Carton.** 78 urte. 2023-06-18.

Jaiotakoak

- **Laiane Camarzana Azpiri.** 2023-06-04.
- **Khloe Zurro Gonzalez.** 2023-06-10.
- **Luken Eizagirre Garcia.** 2023-06-15.



Eratu da Udalbatza berria

Zapatu goizean egindako Osoko Bilkuran eratu zen datozen lau urteotarako Udalbatza berria. Hautetsi zaharrenak (Mertxe Garatek) eta zinegotzi gazteenak (Nerea Barruetabeñak), Udal Idazkari Nagusiarekin batera osatutako adin-mahaiak zuzendu zuen ekitaldian, Jon Iraola Iriondo izendatu zuten Eibarko alkate, aldeko zortzi botorekin. Berarekin batera hartu zuten kargua 20 zinegotziak. Bestalde, alkatea aukeratzeko botazioan, Arantza Mata EH Bilduko alkategaiak aldeko sei boto jaso zituen, eta zazpi boto zuri zenbatu zituzten.



Minbiziaren kontrako martxak kolore berdez bete zituen kaleak

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak antolatuta zapatuan egindako martxa solidarioa erabat arrakastatsua izan zen, ehundaka parte-hartzailerekin. Herri barruan egin zen hiru kilometroko martxaren aurretik, beroketa gisa, Untzagan Zumba saioa egin zen Kaxa mugimendu eta sormenaren eskutik. Bigarrenez antolatu den ekimenari esker bildu duten dirua Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak pazienteei zein senideei doako zerbitzuak eta arreta eskaintzen jarraitzeko izango da.

Sorbak bedeinkatzeko meza egingo dute Azitaingo elizan San Juan egunean

Aurten ere sorbak bedeinkatzeko meza ospatuko dute Azitaingo elizan, San Juan egunean, 10:30ean. Eibartar askok eusten diote ohiturari eta, diotenez, "bedeinkatutako sorbak etxe eta baserrietako ateetan ipintzen dira, hurrengo urteko San Juan bezperako suan erre arte. Udaren hasieran bedeinkatzen ditugun sorbek baserri eta naturarekin daukagun lotura gogoratzen digute eta, fededunok, euren gandik jasotzen dugunarengatik eskerrak eman eta zaintzeko konpromisoa hartzen dugu horrela".



BIC GIPUZKOA
UP! EUSKADI

Edificio Tekniker
Iñaki Goenaga kalea, 5. EIBAR
tel.: 943 00 09 99

www.bicgipuzkoa.eus

bic@bicgipuzkoa.eus



Banatu dituzte Argazkilaritza Maiatzeaneko argazki-rallyaren sariak

Zapatuan banatu zituen Klub Deportiboko argazkilaritza taldeak antolatzen duen rallyko sariak. Kolorre tako arloan Zallako Jose Luis Rodriguezek eraman zuen lehen saria, Beasaingo Patxi Irazabal geratu zen bigarren eta Barakaldoko Alberto Sanz hirugarren. Atal sozialeko saria Zigor Astigarraga durangarrak jaso du, eta gazteen arlokoa Lucia Gamiz altzolatarrak. Zuribeltzean Zigor Astigarraga durangarra nagusitu da, Altzolako Victor Gamiz eta Eibarko Jose Luis Irigoienen aurretik. Atal sozialean, Virginia Arakistain eibartarrak eraman du saria.



Ortzadarraren koloreak dauzkan bandera igo eta elkarretaratzea egingo da

Ekainaren 28a LGTBIAQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, Berdintasuna-Andretxeak hainbat jarduera antolatu ditu horren harira: 13:00ean ortzadarraren koloreak dituen bandera igoko dute, Untzagan, eta jarraian elkarretaratzea egingo da. Egund horren inguruko adierazpena ere irakurriko dute eta "LGTBIAQ+ fobiarik gabeko gunea" idatzita duten txapak eta biniloak banatuko dituzte. Gainera, Juan San Martin udal liburutegiarekin elkarlanean gaiari buruzko irakurketa-gida eta stand informatiboa ere prestatu dituzte.

Sanjuanetako billar txapelketaren bigarren edizioa jokatu zuten Casinon

Casino Artista Eibarres-ek antolatutako billar txapelketa jokatu zen zapatuan eta Ricardo Roblesek jantzi zuen txapela bigarren ezin den San Juan Sarian, bigarren geratu zen Ricardo Ereñari irabazi eta gero. Sergio Boullosa eta Antonio Martinez 3. eta 4. postuan sailkatu ziren, hurrenez hurren, eta Fede Aldazabalek eta Albertok txapelketako takada handienari saria eraman zuten. Sari-banaketa eta luntzarekin agurtu zuten ekitaldia.





Larragest

INMOBILIARIA 697 258 966



F. Calbeton
22-24

*Eibarko zure
konfiantzazko
Inmobiliaria*



Pilotaririk onenak arituko dira San Juan egunean Astelenan

Domekan jokatu den San Juan eguneko pilota jaialdia aurkeztu zuten martitzenean Jon Iraola alkateak, Iñaxio Errandonea ASPE-ko zuzendari komertzialak eta Aitor Elordi buruz buruko txapeldunak. Arratsaldeko 17:00etan hasiko den jaialdian hiru partida jokatu dira eta, buruz buruko partida nagusian, Aitor Elordi eta Elezkano II.a lehiatu dira. Binakako beste bi partidetan, Egiguren V.a eta Rezusta arituko dira Mata eta Zabaletaren aurka, eta Victor eta Arbizu Exposito eta Bikuñaren aurka.

Zabaldute errotuluak euskaratzeko dirulaguntzak eskatzeko epea

Lokal komertzial, industrial eta elkarteetako egoitzetako errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntza eskaera egiteko epea zabalik dago. Hiru kontzeptu ezberdinetarako eska daitezke, azaroaren 13ra arte. Informazio guztia www.eibar.eus webgunean kontsultatu daiteke eta eskaerak ere bertan egin daitezke.



Ederto hasi dira Eibarko Errealzaleak taldearen 25. urteurrena ospatzen

Eibarko Errealzaleak sortu zela 25 urte bete dira eta, hori ospatzeko, zapatuan bazkaria egin zuten Astigarragan, sagardotegi batean eta, ondoren, Anoetara (Reale Arena) joan ziren, Loinazen eskutik bisita egingo zuten. Juanito tabernan egoitza duen taldeak 60 bazkide ditu gaur egun eta bertatik abiatu ziren, Errealaren autobusean.

Astlehenean hasiko da Saskibaloia Astea

Saskibaloia Astea antolatzen du Eibar Saskibaloia klubak, gure herrian eta inguruan bizi diren neska-mutilek (2009-2016 urteetan jaiotakoek) kirol hori ezagutu dezaten. Horretarako, ekainaren 26tik uztailearen



1era bitartean, 09:30etik 13:00era Ipurua kiroldegian (pista berdean eta erdikoan) egongo dira, entrenamenduak, partidak eta lehiaketak eskaintzen (irabazleentzat sariak banatuko dituzte).

BENICOBA
ETXEKO TRESNAK

J. Gisasola, 12-14
943 20 39 02 / 606 83 83 61
San Juan
zoriotsuak!

29. urteurrena

Kultö:

Zuloagatarren, 3 943 20 84 39

**SAN JUAN ZORIONTSUAK!!
HORRETARAKO GAUDE-ETA!!**

**Pintxoen
alardearen
erreinua!**

943 181719

 **aldaz**
horts klinikak · clínicas dentales

943 36 63 77

LASARTE · TOLOSA · ELGOIBAR



**TRATAMENDU GUZTIAK
ZENTRO BEREAN.
LEHENENGO BISITA ETA
RADIODIAGNOSIA DOAN.
ODONTOLOGIA ETIKOA.**

**Zure irribarrea
egingo
dugu**

Jaietarako beroketak eginda

Argazki bildumak gure mediatekan ikusgai



ARGAZKIAK: KULTURA-EIBARKO UDALA



<p>GARBITU (30 min)</p> <ul style="list-style-type: none">- Idealia (9 kg.) 5€ / 4€- Super (20 kg) 9€ / 7,5€ <p>LEHORTU (30 min)</p> <ul style="list-style-type: none">- Idealia (14 kg.) 4€ / 3,5€- Super (21 kg) 8€ / 4,5€ <p>Zure jabola eta leugarria ekarri dezakezu edo gureak erabilt!</p> <p>Ordubetean zure erropa garbitu eta sikatuta</p>	<p><i>Ekarri zure mantak eta edredoiak garbitzera gorde aurretik</i></p>	<p>GARBITEGIA</p> <p>Speed Queen. autozerbitzua</p>	<p>Ego-Gain, 15</p> <p>BUS SELTOKI ONDOKAN</p> <p>astelchenetik igandera 08:00-22:00</p> <p>ESKERRIK ASKO bezero guztioi</p>
---	--	---	--



 <p>EUSKO LABEL</p>	<p>Baimendutako harategia Euskal Okela Carnicería autorizada</p>	<p>Bidebarrieta, 20 Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar ETXERA ERAMATEN DIZUGU 943 20 16 69 f @Oberenaharategia</p>	 <p>OBERENA HARATEGIA</p>
--	--	--	---



Berbalagunak Elgoibarren...

Aurreko eguenean agurtu zuten ikasturtea Berbetan programako berbalagunek. Elgoibarko Lizagasar sagartokian elkartu ziren hogeita hamar bat berbalagun eta arratsalde bikaina pasatu zuten sagartokiko Asier



eta Ane arduradunen azalpenak entzuten. Eta, azalpenak entzun ondoren, hainbat produktu dastatzeko aukera ere izan zuten: sagardoa, gazta, txorizoa, madalenak... Horrelako irteerak aukera polita izaten dira talde desberdinetako berbalagunak elkar ezagutzeko. Urrian ekingo diote hurrengo ikasturteari.



...eta Ongietorrikoak Arraten

Harrera eta elkabizitzarako programako partaideak, berriz, Arratera joan ziren zapatu goizean, eta talde ederra elkartu zen han ere. Eguraldia lagun primeran pasa zuten Ongietorri programako familiek; Arraten eta inguruan paseatu zuten eta guraso eta seme-alaben arteko jolasak egin zituzten. Era horretako irtee-



rak ere aukera polita izaten dira talde ezberdinetako kideak elkar ezagutzeko. Lau talde izan ditu aurten Ongietorri eta astero elkartu dira herriko lau auzotan, Urkin, Urkizun, Amañan eta Ipuruan. Uztailaren 4an agurtuko dute ikasturtea Elorriora egingo duten txangoarekin. Belaze baserria bisitatuko dute Euskal Herriko baserrietako bizitza eta baserritar ofizioa bertatik bertara ezagutzeko.



Zorionak eibartarroi eta ondo pasa jaietan!

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com

EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7.-C

AHOLKULARITZA
 eta
 GESTIOA

Euren onena eman zuten kirolariek Euskal Jaialdian

XXVIII. edizioak ere lehia bizia utzi digu. Bederatzi kirolarik jardun zuten aurreko domekan nor baino nor eta erakustaldi bikaina eskaini zuten Untzagan. Ibarraiko Jesus Mari Mujika, Julen Mendieta lemoarra eta Olaia Esnaola harrijasotzaile azpeitiarraren taldeak irabazi zuten lehia; bigarren gelditu ziren Bihurri, Josean Etxeberria baztandarra eta Ane Zinkunegi Usurbilgo harrijasotzailea, eta hirugarren postua Txikon, Beltza eta Andoni Elizondo arabarrak osatutako hirukoreak lortu zuten.

ARGAZKIAK: www.etakitto.eu/mediateka



EKAINAK 23, BARIKAKUA

- **10:30ean**, San Andres egoitzan, Santuari zapia jarriko zaio Kaleetan Kantuz taldearen laguntzarekin.
- **11:00etan**, Untzagan hasita, Sanjuanetako Zortzikoa, Usartza Txistulari Bandaren eskutik eta musikarien laguntzaz.
- **12:00etan**, Untzagan, kuadrillak bildu, eta Ustekabe fanfarrearekin kalejira Urkizuraino. Antolatzailerak: Gaste.
- **13:00etan**, Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei, eta kalejira Untzaga plazaraino, Udaltzaga, SD Eibar emakume taldea, Hodei Ezpeleta, Lorea Urkia, José Pérez Cid "El Tigre", Aitor Montero eta kuadrillak lagun dituztela.
- **13:30ean**, Udaletxetik, pregoia eta jaiei hasiera emateko txupinazoa.
- **13:30ean**, Arraten, Eibarko helize tiro Sari Nagusia.
- **13:45ean**, Udaletxean, Sanjuanetako kartel lehiaketaren eta alkohol gehiegikeriaren kontrako pegatina lehiaketaren sari banaketa.



GOIKO LUZ
ZUENTZAT ARGI
ONENEN BILA

Zerbitzu guztiak
zuentzat:
instalazioak,
konponketak...

*San Juan
bikainenak
pasatzea opa
dizuegu!!!*

Otaola Hiribidea, 13
943 200 883
www.goikoluziluminacion.com

AMAÑA
FONTANERIA

- KALEFAKZIO INSTALAZIOAK
- SUKALDEAK ETA BAINIAK
- GALDARA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOAK
- BUTANO, PROPANO ETA GAS NATURALAREN INSTALAZIOAK
- AZTERKITA ETA PROIEKTUAK ORDENADOREZ
- AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12
943 201 930
fonta.amana@gmail.com



Ondo pasa Sanjuanetan!



CASINO
ARTISTA
EIBARRES

Toribio Etxebarria, 18 - 1.

Enkarguak
hartzen
dira

Telefonoa: 943 20 71 90

JANARIA ETA EDARIAK ERAMATEKO

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTEGUNERA 06/22
OSTIRALEAN 06/23 LARUNBATEAN 07/23 IGANDEAN 08/22

943 358138

660 460295

Gastro-Bar
ORBELA



Urkizu, 24



**TIKI
TAKA**

JAIETXEA

Jaietako
Menu
Bereziak

San Andres pasealekua, 2
Tel. 943 284 006



Errebal kalea 24 - 943 70 13 23

Bista Eder, 11
Tel. 943 47 77 79
suberoataberna@gmail.com

**GORA
GURIDI**
SAN
JUAN!

- **17:00etatik 20:00etara**, Untzagan Klarion tailerra: Sanjuanetako munduko kartel haundiena, Lekim Animazioaken eskutik.
- **17:30etik 20:30era**, Urkizun, umeentzako puzgarriak.
- **18:00etan**, Untzagatik abiatuta, kalejira Ustekabe fanfarrearekin.
- **19:00etan**, Urkizutik, Lizarrako erraldoi eta buruhandien eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira.
- **19:00etan**, Karmengo Amaren elizan, Salbea Parrokiako abesbatzarekin.
- **19:30ean**, Untzagatik abiatuta, kalejira Irulitxa fanfarrearekin.
- **23:30ean**, Untzagan, San Juan Sua eta Nele Dantza - Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia, ...eta kitto! elkartearen eskutik, eta Queimada, As Burgas Casa Cultural de Galiciak antolatua.
- **00:00etan**, Untzagan San Juan Kantua eta jarraian Danborradaren Alardea, Eibarko Cielito Musika Bandaz lagunduta.
- **00:00etatik 03:30era**, Untzagan, Testing Programa, Ai laiket.
- **00:15etik 04:00etara**, Untzaga plazan, berbena Lisker taldearekin.



LENTZERIA MERTZERIA

TXUKUNA

943 821 308
Eulojio Garate, 1

trinmer Telekomunikazio
Instalaziorako
Enpresa
1305 zkia.

TB seinalea jasotzeko
antena-instalazio profesionalak
Satelite bidezko TB / TB digitala
Teledistribuzioak
Konponketak eta mantenimendua

td trinmer

www.trinmer.com Ego-Gain, 2 Bac
Tel: 943 127 350

EKAINAK 24, ZAPATUA

- **08:30ean**, kalejira Lizarrako Dultzaineroekin.
- **10:30ean**, Azitaingo elizan, San Juan meza eta sorben bedeinkatzen.
- **11:00etatik 14:00etara** eta **17:00etatik 20:00etara**, Untzaga Plazan, “Mustruoaren koloreak” jolas parkea, Tomb Creatius antzerki taldearen eskutik.
- **12:00etan**, Arraten, San Juan tiro txapelketa.
- **12:00etan**, Karmengo Amaren elizan, meza kantatua Parrokiako abesbatzarekin.
- **12:45ean**, Toribio Etxebarrian, Eibarko Cielito Musika Bandaren San Juan kontzertua. Euria eginez gero, Errebal Plazan.
- **18:00etan**, Eibarko Bizikleta plazan, IV. San Juan City secrets, makro-ginkana kuadrilrentzat, Itzamnaren eskutik. 2011 baino lehenago jaiotakoentzat.
- **19:00etan**, Anbulatorio parketik Untzagara, “Kale zirkoa” kale antzerkia Zirkozaurre konpainiarekin.



CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

UltraLift HIFU
Intentsitate handiko ultrasoinu fokalizatua

LIFTING KIRURGIKOAREN BENETAKO alternatiba

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITISA rekin ERAGINKORRA DEN TEKNOLOGIA BAKARRA

ZONALDEAK
Izterrak / ipur-mesailak
besoak /sabelaldea

Azalarren ELASTIKOTASUNA hobetzen

Isasi, 39
943 20 88 56
673 11 81 81

EPA EIBAR HHI
23/24 ikasturtea

ESKAINNTZA
DBH titulua / Informatika (0 maila)
Euskera eta Ingelesa / Unibertsitate eta Zikloetarako sarrera / Atzeritarrentzako gaztelania / Oinarrizko ezagutzak: Irakurketa-Idazketa-Mintzamena

MATRIKULA ORDUTEGIA
ekainaren 20tik 30era 10etatik 13etara
online matrikula: <https://epaeibar.hezkuntza.net/>

- **19:00etan**, Urkizun abiatuta, Umeen Danborrada, Ustekabe fanfarrearekin.
- **20:00etatik 00:00etara**, Botiltzarra Ai Laket.
- **20:30ean**, Untzagan, umeen pregoia, Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta Alardea.
- **22:00etan**, Erromerixa Untzaga plazan, Jainaga eta Narbaizaren eskutik.
- **23:30ean**, Soka Dantza Untzaga plazan, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldearekin.
- **00:00etan**, suzko erroberak Global Foc SL Pirotecniaren eskutik.
- **00:00etik 03:00era**, Alkoholemiaren karpa.
- **00:15etik 03:00etara**, Untzaga Plazan, berbena Nueva Alaska orkestrarekin.



Urkizu, 18
943120194

MUGIKA

Harategia - Urdaitegia
Carricería - Charcutería

Baserrero Harategia

CASTAÑO

Fermin Calbeton, 1 - 1. ezk.
943 20 70 47
www.peluqueriacastaño.com

ILEORDEKOAK
ONKOESTETIKA
ILE-PROTESIAK
LUZAPENAK

Diskrezio osoz
Aurrez aurreko
ZITA



Ondo pasa Sanjuanetan!

T. Etxebarria, 8

BAR BUENOS AIRES

Untzaga, 5

FAUSTO
kafetegia

OGASBAR
PLATER KOMBINATUAK
PINTOAK
OGIARTEKAK

Karmen kalea, 1
608 133 535

CAFE EIBAR

OGASBAR
PLATER KOMBINATUAK
PINTOAK
OGIARTEKAK

J. Etxebarria, 12
608 133 535

GASTROTEKA BOSSA

Ego gain, z/g

Ongi etorriak zuen etxera!!

943 20 67 53

URKIZU, 22 943128086

Aguñazpi

MENU BEREZIAK ENKARGUZ
Plater kombinatuak, Raziok,
Bokatak, Hamburgerak

Irteeretan 07.00etatik asteburuetan 08.00etatik

Akhara

Uztrogua Plazaren Etxea
943 043 282

Sokoia Pub

KATU

k a l e

NEW
A DOMICILIO
& TAKE AWAY
T. 943 56 72 06

HIRUROK

BRASS

1000 eta gehiago
prezuetan ERREKATXU, 1

ostegunetik
igandera

19:30etik
23:30era

SANJUANAK



GURIA

ELECTRICIDAD

MUNTAIA ETA PROIEKTU ELEKTRIKOAK




Matxaria, 2 - Pabellón 7 - Tel. : 943 70 08 95 - Fax: 943 82 00 27
www.electricidadguria.com - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)

ZELAIÀ

FRUTAS Y VERDURAS

ZELAIÀ

*Frata eta barazki freskoenak
 eska-eskara! Aprobetsata!!*

Fermin Calbeton, 6 Tel. 943-048535

EKAINAK 25, DOMEKA

- **08:30ean**, kalejira Lizarrako Dultzaineroekin eta goiz-erestia.
- **11:00etatik 14:00etara** eta **17:00etatik 20:00etara**, Untzaga Plazan, “Mustruoaren koloreak” jolas parkea, Tomb Creatius antzerki taldearen eskutik.
- **11:30ean**, San Juan XXVIII. marmitako lehiaketa, Untzaga plazan.
- **17:30etik 20:30era**, Urkizun, umeentzako puzgarriak.
- **18:00etan**, Urkizutik, Bergarako Erraldoi taldearen eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira.
- **18:00etan**, Untzagatik, kalejira Africa Baj Yay taldearekin.
- **19:00etan**, Untzaga Plazan, Eibarko X Dantza konpaniaren “eta orain zer?” kaleko dantza ikuskizuna.
- **19:00etan**, erdigunean, “Kermes del vermú” kale antzerkia Gorakada - Artelanda - Fran Lasuen konpainiarekin.
- **20:00etan**, Untzaga plazan, Afrika Bibang taldearekin kontzertua.
- **23:00etan**, suzko erroberak Pirotecnia Vulcanoren eskutik.

EKAINAK 27, MARTITZENA

- **16:30ean**, Karmen kaleko parkean, umeentzako txokolate-jana.
- **17:00etan**, Karmen kaleko parkean, umeentzako jolasak.
- **19:00etan**, Karmen kaleko parkean, Oliver magoaren emanaldia. Antolatzaila: Beheko Tokia.

EKAINAK 28, EGUAZTENA

- **12:00etan**, Karmen kaleko parkean, toka eta igela txapelketa.
- **18:00etan**, Karmen kaleko parkean, Trio Medianoche taldearen musika emanaldia. Antolatzaila: Beheko Tokia.

EKAINAK 29, EGUENA

- **12:00etan**, Karmengo Amaren elizan meza, Gospel Bilbao taldearekin.
- **13:00etan**, Karmen kaleko parkean, toka eta igel-toka txapelketaren sari banaketa eta psikolabisa. Antolatzaila: Beheko Tokia.

Arregi - Dominguez
ARRAINDEGIA

Bidebarrieta, 4
943 201138

Ego-Gain, 9
943 203209



San Juan zoriontsuak

Arrain freskoa eta izoztua
Mariskoak / Ondarruko arraina
Enkarguak hartzen ditugu



SOUL
estilistak

Errebal, 20
www.peluqueriasoul.com
943 567 232

Lizarrako dultzaineroak ailegatzeko irrikitan

Bihar, San Juan egunaren bezperan egingo zaie harrera Lizarrako dultzaineroei, 13:00ean, tren geltokiaren parean. Ohiturari jarraituta, udaleko ordezkariak eta aurtengo omenduek egingo diete ongietorria, gaiteroen omenez bertan dagoen eskulturaren aldamenean eta, jaietako zapia jantzi eta berehala, dultzainaren musikaren erritmoari jarraituta Untzagaraino joango den kalejira hasiko da, kalearen albo biak beteko dituztenen txalo artean.

Untzagara ailegatu eta txupinazoa bota aurretik, Sanjuanak Estaziño kalean ospatzen hasten gabela esan daiteke. Izan ere, eibartar askorentzat dultzaineroak etortzearekin batera hasten dira jaiak. Hori dela eta, ez da harritzekoa urtero horrelako jendetza batzea tren geltokiaren inguruan, Lizarrakoak agurtu eta ongietorri beroa emateko. Untzagarainoko kalejira ere jendetsua izan ohi da beti, eta ibilbide osoan zehar ere ondo inguratuta egoten dira: udalbatzako kideekin eta omendutakoekin batera, herriko gazteen kuadrillak ere izaten dituzte lagun, baita jaien hasierako ekitaldi hau bereziki maite duten eibartar mordoa ere.

XIX. mendeko ohitura

Dultzaineroei harrera egiteko ekitaldi hau, hunkigarria ez ezik, oso aspalditik datorren ohitura ere bada. Zehazki, XIX. mendearen amaieran, 1898. urteko sanjuanetan hasi ziren Lizarrako dultzaineroak Eibarrera etortzen, San Juan jaiak alaitzera. Behintzat, hala dago jasota Udal Artxiboan gordeta dagoen agiri batean. Sasoi hartan trenez etortzen ziren Eibarrera, eta hala jarraitu zuten luzaroan. Eta, nahiz eta aspalditik automobilez etortzen diren, dultzaineroei ongietorria tren geltokian egiteko ohiturari gaur egunera arte eutsi diogu eibartarrok. Eta bihar ere han egongo gara, Salvador Martinez eta Juan Carlos Duñabeitia, azken hamasei urteotan sanjuanak alaitzera etorri diren Liza-



rrako Gaiteroak, lagunduko dien danbolin-jolearekin batera, tren geltokitik noiz irtengo diren zain.

Jaietako beste ekitaldi batzuetan ere

Askok Lizarrako dultzaineroen irudia jaien hasiera-ko une horrekin lotzen badugu ere, ezin dugu ahaztu San Juan jaietako beste ekitaldi batzuetan ere urtero parte hartzen egoten direla. Bihar bertan, 19:00etatik aurrera, berriz ere kalejiran ibiliko dira, Urkizutik Untzagaraino, beraien musikarekin Lizarrako erraldoiak dantzan ipini eta buruhandiei laguntzeko.

San Juan egunean, berriz, Eibarko Cielito Musika Bandaren eguerdiko kontzertuan ere aritzen dira, Eibarko musikariekin batera hainbat pieza eskaintzen. Aurtengo saioa 12:45ean izango da, Toribio Etxebarria kalean (euria egingo balu, Errebal Plazan joko lukete).

Eta, nahiz eta urteetan ez den enbolaturik egin, dultzaineroek berdin-berdin jotzen dute diana goizean goizetik, eibartarrak esnatu eta jaiak ospatzen jarraitzera animatzeko. Aurten ere hala egingo dute San Juan eta San Juan Txiki egunetan, 08:30etik aurrera.

AUTOEN GEHIGARRIA

2023ko EKAINA

Iritsi da bidaiatzeko sasoia

Hidratatu. Bidaia luze bat egin behar baduzu tenperatura beroekin, edan ura. Ahal izanez gero, ibilbidea hasi baino lehen, gidatzen ari zarela edateak distraitu egin zaitzake eta. Hala ere, ez dabila botila bat falta bidaian zehar freskatu ahal izateko.

Aireztatu autoa. Jaitsi leihoak mugitzen hasten zarenean, horrela aterako baita aire beroa autotik. Minutu batzuen ondoren jarri aire girotua. Hasieratik konektatzen baduzu, aparteko lan bat egin beharko du.

Txankletekin gidatzea. Ez dago berariaz debekatuta haiekin gidatzea, baina oso urrun daude bolantero joateko oinetako proposak izatetik. Irrist egin eta pedalen ar-

tean gera daitezke, horrek dakarren arriskuarekin.

Autoaren aurreko parasola. Itzalpean aparkatu ezin bada, irtenbide ekonomiko eta eraginkor samarra da. Autoa beroa egongo den arren, sofoko sentsazioa txikiagoa izango da. Aluminiozko eguzkitakoek eguzki-izpiak errobotatzen dituzte eta UVA izpien eragina izugarri murrizten dute.

Eguzkitako betaurrekoak. Derri gorrezkoa ez bada ere, oso gomendagarria da eguzkitako betaurrekoak erabiltzea garai honetan. Argia begietara zuzenean iristen ez bazaizu ere, errepideko eta beste gainazal batzuetako islek itsutu egin zaitzakete eta une batez ikusmena galdu.





SUMENDIXA GOIKUA S.L.

Sostoa, 1 - behea (EIBAR)

☎ 943 82 04 49

☎ 688 871 717

✉ lurzuri@mapfre.com



teCuidamos



Matsaria, 2
3 Pabilioia
-Eibar-

Pintura (labean lehortua) Txapa
Neumatikoak Mekanika

943 208 502 carrocerias_mak@hotmail.com 699 203 791



Urtzi Antxustegi
(688 649 837)

09:30/19:00 **EROSKI-n**



LEHEN



ORAIN

ZER DA IBILGAILU HISTORIKO BAT?

Zure auto klasikoak 30 urte baino gehiago baditu, ibilgailu historiko gisa matrikulatu ahal izango duzu. Ikuspegi praktikotik, onurak ditu.

Auto bat ibilgailu historiko gisa sailkatzen denean, jabea salbuesita dago udalerrri batzuetan zirkulazioaren gaineko udal-zerga ordaintzetik, eta bere fabrikazio-urteagatik, ez da beharrezkoa autoak kutsaduraren aurkako arau zorrotzak betetzea.

Ibilgailu bat historikotzat katalogatzeko eskatu ahal izango da, irizpide hauetakoren bat betetzen badu:

- Antzintasuna: Historikotzat jo ahal izango da lehen matrikulaziotik edo fabrikaziotik gutxienez 30 urte dituen eta jatorrizko egoeran dagoen ibilgailua. Ezin izan du aldaketarik izan ezaugarri edo osagai nagusietan: motorra, balaztak, norabidea, esekidura edo karrozeria.

- Interes berezia: Espainiako Ondare Historikoko Ondasun Higigarr



rien Inbentario Orokorrean inskribatuta dauden ibilgailuak, interes kulturalako ondasun deklaratu daudenak edo ibilgailuak gertaera historikoren batean parte hartu duenean.

- Bildumako ibilgailua: Ibilgailuaren berezitasunagatik edo urritasunagatik historikotzat jo behar direnean.

Auto klasikoek bete beharreko baldintzak

- 40 urtetik beherako ibilgailuek bi urtean behin igaro behar dute IATA edo ITVa; antzintasuna 40 eta 45 urte bitartekoa bada, azterketa hiru urtean behin egingo da; eta autoak 45 urte baino gehiago baditu, 4 urtean behin pasatu behar da IATA.

Konfiantzako zure konponketa lantegia, zentroan kokatuta.

Talleres Caño

943 53 08 70

Ubilra 2 | Armagin 8

GASOLEOEN BANAKETA

20.000 L. 2.000 L.

Otaola etorbidea, 13-Bis
Tinoa. 943 20 73 74 / 94 671 62 77

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

ARGABA GESTION, S.L.

Auto-aparkalekua eta etxebizitzak **ALOKAGAI**

Urtzaille, 1 (Aurrera eraikina)
943 206 383 / 672 338 993

- 30 urtetik gorako autoak baka-
rrik erregistra daitezke eredu his-
toriko gisa.

- Auto bat klasikotzat jotzeko, an-
tzinatasunaz gain, Espainiako On-
dare Historikoko Ondasun Higiga-
rrien Inbentario Orokorrean sartuta
egon behar du, bildumako ibilgailua
bada, interes kulturekotasunaz
jo bada edo gertaera historikoren
batean edo pertsonaia garrantzitsu-
ren baten bizitzan parte hartu badu.
Horretarako, beharrezkoa da kla-
siko klubaren baten edo zuzenean
fabrikatzailearen txosten bat izatea
ibilgailuak biltzen duen ezaugarri
bereizgarria islatzeko.

- Auto klasikoek ikuskapen zorrotza
gainditu behar dute laborategi
ofizial batean. Bertan, haien egoera
zehazten da eta IAT noiz pasatu
behar den jakinarazten da.

Zirkulazio-mugak

40 km/h-ko abiadura gainditzen
ez duten ibilgailuak bazterbidetik
mugitu beharko dira, eta, era berean,
60 km/h-ra iristen ez diren ibilgailuek
debehatu dute autobideetan
eta autobietan zirkulatzeko. Gainera,
komeni da ikuskapen teknikoko txar-

tela berrikustea, bertan beste murriz-
keta batzuk ezar baitaitezke hainbat
egoeraren arabera, hala nola gauez
edo eguraldi txarrarekin gidatzea.

Zure autoa historikoa da

Historikotzat matrikulatzen za-
ren unean, ibilgailua historikotzat
hartuko da:

- Ibilgailuari beste zirkulazio-bai-
men bat eta IAT fitxa tekniko bat
emango zaizkio. Bertan, ibilgailua-
ren egoera berria adieraziko da, eta,
halakorik balego, ibilgailuarekin
zirkulatzeko mugak adieraziko dira.

- Matrikula-plaka berezi berri bat-
zuk esleituko zaizkio, ibilgailua his-
torikotzat identifikatzeko.



30 urtetik gorako autoak bakarrik erregistra daitezke eredu historiko gisa

ACITAIN, S. A.
www.acitain.com ZERBITZUGUNEA

- 24 ORDUKO ZERBITZUA **AVIA**
- Gasoleoen zuzeneko banaketa
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com

**AUTO KONPONKETAK
AURRERA**

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Manteimendua - Erroberak

Urtzaille, z/jg Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

Ford LERUN

ZERBITZU OFIZIALA

Deba kalea, 12 (ELGOIBAR)

ventas@fordlerun.com Tfnoa. 943-742591

@fordlerun 626174862

Kirolari nabarmenak aurtengo omenduen artean

Urteroko moduan, San Juan jaiak aprobetxatuko ditu Udalak hainbat talde eta pertsona omentzeko eta, aurtén, Eibar Kirol Elkarteko emakumezkoen taldea, Hodei Ezpeleta aizkolaria, Lorea Urkia Miss Grand Euskadi, Jose Perez "El Tigre" boxeolaria eta Aitor Montero motorzalea izango dira jaietako omenduak, bakoitzak bere esparruan egindako lana eskertu eta lorpenak aitortzeko.



Eibar Kirol Elkarteko **emakumeen lehen taldeak** kategoria gorenean zuen postua galdu eta urtebetera lortu du berriz ere maila gorenera bueltatzea. Yerai Martinek zuzendutako taldeak denboraldi bikaina egin du eta RFEFeko Lehen Mailako talde bakarreko txapelturno geratu dira, Bartzelona B-ren atzetik. Hiru partidua baino ez dituzte galdu eta, 30 partidutan, 18 gol sartu dizkiete armaginei. Denboraldi biribila egin arren, maiatzaren 14an jokatu zen azken partiduko azken minuturaino itxaron behar izan zuten mailaz igotzen zirela ziurtatzeko. Ondo merzitako omenaldia jasoko dute emakumeen kirolak gure herrian bizitzen ari den loraldiaren adibideetako bat den taldeko jokalariek. **Hodei Ezpeleta "Bihurri"** aizkolaria ere lorpen handiak egin ditu, azken

kili  klik
argazkilaritza fotografia

646114443 · kili_klik  

kilimaksortzen@gmail.com · Indalecio Ojanguren 1

LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA

Gaurve

Tfnua. 943 202 461 Faxa. 943 201 125
Fermin Calbeton, 13-15 www.gaurve.es

Lorpen garrantzitsuak izan dituzten eibartarrak omendu ohi ditu Udalak urtero sanjuanetan



urteotako palmaresa ikusi besterik ez dago: Euskadiko Aizkolari Txapelketa irabazi du bi urte jarraian (2021ean eta 2022an); Bizkaiko Lehen Mailako Aizkora Txapelketa (2022an): eta 2021ean banakako Urrezko Aizkoran txapela jantzi eta gero, aurtengoa ere garaipena lortu du, oraingo honetan binakakoan, Jokin Urretabizkaiarekin batera.

Kirol arloko merituekin jarraituz, bere sasoiaren **boxeolaria izandako Jose Perez “El Tigre”-k** ere omenaldia jasoko du, gure herrian duen urteetako lana eskertzeko. **Aitor Montero motorzale** eibartarrak ere garaipen garrantzitsua lortu zuen iazko azaroan, Alcañizen jokatu zen Motorland Aragon

zirkuituan SBK 1000 Open Easy-Race kategorian txapeldun geratzea lortu zuen eta.

Eta, kirol arloko lorpenak albo batera lagata, aurtengo omenduen zerrenda biribiltzeko, **Miss Grand Euskadi** titulua irabazi duen **Lorea Urkia** ere omenduko dute. Denak irtengo dira udaletxeko balkoira, jaietarako hasiera emateko.

GORA SANJUANAK!

Ostalaitza

Arkitektura industriala

Erakinen publikoak

KOKOJATEN
arkitektura eta diseinua

Etxe erreformak

Bulegoak

Barne diseinua

Jaietarako doinuak Eibarko Musika Bandaren eskutik



San Juan egunaren eguerdian emanaldi berezia eskainiko du Eibarko Musika Bandak. Zehatzago esanda, saio bikoitza izango da, lehenik kalejira egingo dutelako eta ondoren kontzertua. Beraz, ederki girotuko dituzte herriko kaleak Eibarko egun handian.

Bandak Estaziño kalean hasiko du zapatuko saioa, 12:00etan. Handik Errebalera, Zuloagatarrenera, Calbetonera eta Untzagara joko du kalejirak, Toribio Etxebarria kalean amaitzeko. “Bertan, Dicastillo diana famatua joko dugu Lizarrako Dultzaineroekin”, Andoni Vazquez Eibarko Musika Bandaren zuzendariak azaldu digunez.

Kalejira amaitzerakoan, 12:45 inguruan, kontzertua eskainiko dute Toribio Etxebarria kalean (euria egingo balu, udaletxeko arkupeetan joko lukete). “Tazko ideari jarraituz, Euskal Herriko herri ez-

berdinetako jaietako doinuak joko ditugu, bai Eibarkoak, baita kanpo-koak ere”, zuzendariaren berbetan. Vazquezek esan digunez, “Sanjuanak izanik, San Juan ereserkiarekin emango diogu hasiera kontzertuari, gero antzinako Eibarko kantuak joko ditugu (Fulmen, Todo fuego...) eta ondoren beste herri batzuetako jaietako pieza ospetsuak (Debakoa, Tolosako aratosteetako, Sanferminetako diana bat). Jai giro alai eskainiko duen errepertorioa prestatu dugu”, bere iritziz.

Hori kontzertuaren lehen zatia-ri dagokionez. Izan ere, bigarren zatian Lizarrako Dultzaineroak izango dituzte lagun. “Eurekin diana, pasodoble, vals eta ‘pasacalles’ bana joko dugu. Pentsatzen dut oso saio betea izango dela euren abesti tradizioaletan oinarrituta eta gogo askorekin hartzen dugu kontzertua”, esan digu Bandaren zuzendariak.

Gestoria Alonso
 San Agustin, 5 - BEHEA
 618 25 93 44
 943 20 20 17
 mcalonsoeibar@gestores.net

GAUR INSTALAZIO ETA ETXE-
 ERREFORMA ELEKTRIKO
 INTEGRALAK. ILUMINAZIOA
 ELEKTRIZITATEA ATEZAIN AUTOMATIKOAK
 ETA BIDEO-ATEZAINAK
 Zuloagatarren, 9 Tel. 943 20 62 40
 nagore@egaur.com



Eibarko Musika Bandak musika kalera eramateko ahaleginak egin ditu azken urteotan eta horren erakusle da herriko kaleetan eskaini dituzten kontzertuak. Gainera, oso erreperitorio zabala jotzeko gai direla erakutsi dute sarritan, ikuskizunak eskaintzen dituzten bakoitzean tematika bati jarraitzen diotelako (orain jaietakoa izan da, baina beste batzuetan pelikuletako abestiak izan dira, rock taldeen bertsoiak ere egin dituzte, eta abar).

Musikaz eta jai giroaz gozatzeko aukera ederra, beraz, San Juan egunaren eguerdian izango duguna.



Lau Kolan
SOLUCIONES INFORMÁTICAS

Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pasalekua, 10

Rivero Isasi 18

696 564 813
943 033 649

Oinetakoen konponketa

astixa

Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231

PINTURAS ARRATE SL

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Berbalagunei aitortza berezia egingo die aurten San Juan Suak



Badira hogeita hamar urte ...eta kitto! Euskara Elkartea San Juan sua antolatzen hasi zela. 1993. urtea zen, lehenengo urte hartan goizaldeko 02:00etan piztu zen sua, danborrada amaitu eta gero. Hurrengo urtetik aurrera, gaur egungo ordutegian egiten hasi zen, 23:00 bueltan. Aurtengoa, beraz, hogeita hamaikagarren sua izango da. Ohitura zaharrak berreskuratu eta baserri inguruan egin ohi den ekintza “kalera ekartzeko asmoarekin ekin genion sua antolatzeari”, diote elkartetik. Sua ixotzeko ardura herriko hainbat elkarte, talde edo norbanakok izaten dute urtero: “Euskararen, herrigintzaren edota kulturaren alorrean nabarmendu direnak gonbidatzen ditugu sua ixotzera, egindako lana eta esfortzua eskertu eta aitortzeko modua da”. Aurten, Berbetan egitasmoko berbalagunak izango dira protagonista nagusiak, “euskarazko mintzapraktika-taldeetan diharduten berbalagunak omendu nahi ditugu, euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak, urte osoan euskararen erabilera bultzatzeko egiten duten ahaleginagatik”. Eurekin batera, Nerea Lodosa ere omenduko du elkarreak, urte hauetan guztietan egin duen lana eskertzeko.

Sua piztu aurretik, oster, Nerea Lodosaren dantzari berotuko dute giroa, 23:30ak inguruan, Untzagan, harmailen aldean. Kasu honetan, ...eta kitto! Euskara Elkarreak Lodosak urte hauetan guztietan egin duen lana omendu nahi duen bezala, dantza irakasleak ere ...eta kitto!-k egiten duen guztiari aitortza eman nahi dio. “Hasiera hasieratik elkarreak herrian izan duen murgiltzea irudikatu nahi dugu, ez bakarrik euskararen alorrean egin duen lanarengatik, baizik eta herrian gertatu eta gertatzen diren gauza askotan izan duen parte-hartzeagatik”, bere berbetan.

154 dantzari

Lodosak dioenez, inoiz baino denbora gehiago eman dute dantzak prestatzen, “baina azken urteetan egin



dugun zailena izan da”, bere ustez. “Gauza asko hartu nahi nituen kontuan eta pot-pourria irten da, azken neurrian, ...eta kitto! den bezala, denetarik egiten duelako”.

Zentzu horretan, berarekin elkarlanean dabilzan dantzarien lana goraiatu nahi izan du. “Arianna Mancheras, Miren Ferrero, Jule Gisasola, Irene Vazquez eta ni neu ibili gara koreografiak prestatzen”, azaldu digu.

Guztira 154 lagun ibiliko dira dantzan Untzagan, 14 minutu iraungo duen ikuskizunean. Euskarazko abestien, Afrikako erritmoen eta doinu elektronikoen baitan egingo dute dantza. “Hainbat gauzen fusioa izango da, futurista eta zorionsua, nik ...eta kitto! ikusten dudana bezala”, Lodosak dioenez. “Oso ikuskizun bizia izango da”.



 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES

• EIBAR •

Etxebizitzak
erdigunean

Gimnasioa

Gourmet aretoa

Garajea

Trastelekua

ETORKIZUNEAN
gehiago gozatuko duzu

ETORKIZUNA
hemen bizitzeko da

900 11 00 22 • neinorhomes.com

EIBAR
Hipermerkatua

Laguntzarekin



EROSKI

zurekin

SANJUAN zoriontsuak!!!

Eibarko lehen danborrada egin zela 95 urte betetzen dira aurten

Astero astero entseguak egiten ibili eta gero, ailegatu zaie kalera irtetzeko ordua bihar gauerdian hasiko den helduen danborradan parte hartuko duten 200 lagunei, eta San Juan egunean, arratsaldeko 19:00etan hasiko den umeen danborradako beste horrenbesteri. Betiko doinuak joko dituzte aurten ere, 23 melodia helduek, eta 12 haurrek. Nagusiek Eibarko himnoa ere joko dutela aurreratu digute, Eibar Kirol Elkarteko nesken taldearen omenez.

Helduen danborrada Untzagan hasi eta amaituko da San Juan egunaren bezperan. Gauerdian, San Juan ereserkiarekin hasiko dira danborhotsak plazan, Eibarko Musika Bandak lagunduta. *Diana, Donostiako Martxa, Pantxika* eta *Hau dek hau* Untzagan jo eta, jarraian, Urkizuraino kalejiran joango dira, atzera ere Untzagara buelta egiteko. Ohiko ibilbidea egingo dute, baina aurten beste batzuetan baino arinago amaitzen ahalegingo direla adierazi dute antolatzaileek, “bestela oso berandu amaitzen dugulako”. Danbor Na-

gusia Juan Luis Baglietto “Manli” izango da, baina aurten ezin izango dute Marruko kainoia erabili, “legeak ezartzen dituen neurriak oso zorrotzak direlako eta, gainera, geroz eta gehiago kostatzen da kainoirako behar dugun bolbora aurkitzea”.

Eta umeen danborrada, berriz, San Juan egunean izango da. Betiko moduan, 19:00etan hasiko da, parte hartuko duten 200 haurrak elkartu eta, jarraian, Urkizutik abiatuko dira, Untzagaraino.

Bestalde, urtero herriko talderen bat gonbidatzen dute karrozan joateko eta aurten Arrate Kultur El-

Elkarrizketaren bideoa elkartearen webgunean:



Zabala **OSTALARITZA ARTIKULUEN SALMENTA ETA MUNTATIA**
Comercial
 ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
 Jose Antonio Gisasola, 6 Tel/Fax. 943 20 88 57
 comercialzabala@outlook.com

Catalana Occidente Seguros
 ERANTZURIKUZIN ZIBILA / AUTOAN EGIZTZA ETA JIBILAZIOA / OSASUN ASEGURUA / ISTURU BANAKANO ETA INOLENTIBOAK / ARRESALU ANITZAK
 ALEX VIDAL Eibarko Txikito, 6 943 200 906 / 616 486 338
 Enj.ka. 0348841723677 alexander.vidal@agentes.catalanaoccidente.com



Martitzenean aurkeztu zituzten San Juan jaietan egingo diren bi danborradak eta, beti bezala, karrozan joango diren ume eta helduei merienda ederra prestatu zieten Izarra elkarteak, Untzagan talde argazkia egin aurretik. SILBIA HERNANDEZ.

kartekoei egokitu zaie, elkartearen sorreraren 70. urteurrena dela-eta.

Arrate Kultur Elkartekoak karrozan Karroza bera apaintzeko orduan ere, Arrate Kultur Elkartearen jarduna izan dute kontuan Udal Dibujos Eskolako irakaslea den Leire Kareagak eta bere laguntzaileek: “Zinema-

kamera, ikus-entzunezkoengatik, Topalekuan egiten diren erakusketak irudikatzen koadro modukoa, *Hau da kultura eguneroko ohitura bihurtu gura* esaldia idatzita duen liburua...”. Eta aurtengo pina ere Arrate Kultur Elkartearentzat diseinatu du: “AKE letrak ikusten dira, danbor baten barruan”.




JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA
EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS
Urtzaile, 1

TEL. 943 204 194 **FA- 943 820 006**
XA. 943 820 006
 egurenyasociados@gmail.com


PODOLOGOA
Maidier Lopez Etxeberria
65 Kolegiatu zbkia.
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

ELEKTRIZITATEA
Elurki s.a.

INSTALAZIOAK
BOBINATUAK
TRANSFORMADOREAK

Arragueta zeharbidia, 1
 Tel. 943 12 05 95 / 72
 Faxia. 943 20 35 53
 transfab@electricidadurki.com


CERRAJEROS
665 590 119
 Tel. 943 107 770 Tel. 943 132 514
 Juan Gisasola, 4 www.cjseguridad.com Araba, 26
EIBAR **cjcerrajerros@gmail.com** **ZARAUZ**

NEREA LODOSA • Dantza irakaslea



Nerea Lodosa (lehen ezkeretik) aurtengo ikasturte amaierako ikuskizunean.

“Irrati-kasete batekin egin genuen lehen dantza”

Dantza garaikideak Eibarren izan duen arrakasta ezin da Nerea Lodosa barik ulertu. Moldeak apurtu eta dantzaren beste ikuspegi bat ekarri zuen herrira, gaur egunera arte hedatuz. San Juan Suaren inguruan aitortza jasoko du, baina ez pentsa bere jarduna etengo duenik. “Nire obra hasi besterik ez da egin”, diosku Neledantzaren sortzaileak.

San Juan Suaren inguruan egin zenuen lehen dantza gogoratzen duzu? 1994an edo 1995ean izan zen, Untzaga zaharrean. Lagun talde bat irrati-kasete batekin jaitsi ginen eta sua piztu aurretik Ravelen Boleroa

dantzatu genuen izara zuri batzuren laguntzarekin. Inori ez genion baimenik eskatu eta mundu guztiak errespetu handiz hartu zuen. Gero, sua piztu zuten. Egia da sasoi horretan suak ez zuela hainbesteko

oihartzunik. Oso gauza librea izan zen, egun batetik bestera pentsatutako zerbait. Oso espirituala izan zen, barrenetik atera zitzaigulako.

Jaietako momentu berezietakoa da dantza. Nola egiten duzue beti zerbait berezia eskaintzeko?

Sasoi berrietara egokitu behar gara eta gauza berriak eskaintzen saiatzen gara. Zaila da, beti espazio bera erabiltzen dugulako eta ia jende berdinak egiten duelako dantza, baina harritzea lortzen dugula uste dut. Begira iazkoa. Demaseko ekaitza etorri zen eta ezin izan nituen dantzariak gelditu. Solidaritate ekintza izan zen.

Nondik datorkizu dantzarekiko pasioa?

Ballet Eibarresen hasi nuen bidea, Juanita Unzuetaekin. Asko gustatzen zitzaidan, baina ezberdina nintzela ikusten nuen, barran eskegi egiten nintzelako ballet klasikoa egin beharrean. 16 urterekin (‘Fama’ telesailaren booma zegoenean) Bartzelonan dantza ikasketak egiteko proba egin nuen eta onartu egin ninduten. Dantza eta Koreografia lizentziatura egin nuen eta Bartzelonako konpainia batean ibili nintzen, baina dantza horiek Eibarrera ekartzea pentsatzen nuen momentu oro.

Hemen ez zegoen horrelakorik?

Ez. Arlo politikoan gauzak oso bero zeuden hemen, baina era berean energia asko zegoela ikusten nuen. Orduan, energia hori beste toki batera bideratu nahi nuen. Eibarko Kiroldegira etorri nintzen Pilar Torres irakaslea ordezkatzaera eta, ezer esan gabe, 4-5 lagunek dantza egiten jarraitu zidaten. Orduan, gauza hazten joan zen eta Elgoibarren, Bergaran eta Ermuan ere ibili nintzen klaseak ematen, gaur egunera arte.



Ondo pasa Sanjuanetan!



Arkupe **mm** Isasi, 2
 Gastro-Pub
 Tel. 943 70 26 91

Untzaga, 11 **Laurel & Hardy Pub**

Zatoz gure sukaldetik ateratzen diren platerak eta momentuan egindako
 propio bereziak dastatzera, espazio eta giro asagunear, eta jatorri-aitura
 ezberdinetako ardoez lagunduta.

Bidebarrieta 39on
 URKIZU PARKEAREN ONDOAN

baratre
 Tel. 943 84 55 63

ONGI ETORRI
 bar eta taberna

T. Etxebarria, 21
 Tel. 943 20 70 07

ZAI-ZOI
 EZDOK LABADERUA
 KM.0 TABERNA
 BITTOR SAKASKETA, 1 BEHEA

BALKOI
 URKIZU, 11 *Zozor desberdina!*

O'JAYS
 DASH TAVERN

Ondo pasa San Juan jaietan!!!
 eta ondo baino hobeto gurekin
 Untzaga, San

Giro alaia Sanjuanetan!

TXOKO
TXOKO
 UNTZAGA PLAZA, 10

Herritik eta herrirentzat antolatutako egitaraua



Jaixak Herrixak Herrixandako taldeak, herriko beste eragile batzuekin batera, jaiez ospatzeko beste alternatiba bat eraiki dute orain dela urte batzuetatik gaur egunera arte, eta oraingoan ere, “Udalaren egitarauak sistemaren oinarriak erreproduzitzen dituen neurrian”, euren berbetan, herritik eta herriarentzat prestatutako egitaraua osatu dute..

Jai herrikoi eta parte-hartzaileak sustatzen dituzte, auzolanean eta lan boluntarioz antolatzen dituztelako norbanako guztien ekimenez. “Gainera, ez dira bakarrik kontsumorako jaiak, herritar orok eman eta jasotzeko jaiak dira”, diotenez.

Euskaldunak dira, “euskararen arnagunea sortzea helburu dugulako, gure herrian euskeraz bizitzea aldarrikatzen dugulako, eta Euskal Herri osoko eta euskarazko sortzaileei espazioa ematea helburu dugulako”, azaldu digute.

Eta azkenik, feministak dira, “persona guztiontzako gune segurua

izatea helburu dugulako, kolektibo zapalduen espazioa ematen diegulako eta, funtsean, jai eredu zisheteropatriarkal kapitalistaren alternatiba delako”, azpimarratzen dute.

Brigada Morea

Zentzu horretan, Brigada Morearen papera azpimarratu behar dago. “Jaixak-en beste lantalde bat da eta, gure oinarrietako bat feminismoa izanda, ezinbestekoa da jaiak eta espazioak denontzat seguruak izatea”, diote. Izan ere, urtero kudeatu behar izaten dituzte erasoak eta, ondorioz, ezin da esan jaiak guztiz seguruak direnik.

Egoera horri aurre egiteko protokoloa dute prestatuta eta Brigada Morearen arduradunak eta sarea antolatuta dituzte, “autodefentsa feministaz aurre egiteko prest”. Azken neurrian, espazio seguruak sortzeaz eta autodefentsa feminista aldarrikatzeaz gain, erasoak jasan duen bakoitzari babesa ematea da helburua bereziki. Orduan,

Sanjuanetan arduradunek txaleko moreak eramango dituzte soinean eta sarekoek zapi edo zinta moreak, eta eraso bat jasan edo ikusiz gero eurengana jo ahal izango da.

Erasoei aurre egitea, ostera, ez da Brigada Morearen lana bakarrik. “Ahalegin handia eskatzen digu hau guztia antolatzeak, mila bilera, eztabaida eta hausnarketa egin behar ditugu, eta uste dugu guztiontzako erantzukizuna dela jaiak guztiontzako gozagarriak izatea, ez feministona bakarrik”, diote. Eta zentzu berean, gizonen arlo horretan jokatu behar duten papera azpimarratu nahi dute: “Berrikusi zuen eta zuen ingurukoen jarrerak, kritikatu eta hausnartu. Jarrera matxista, transmarribollo-fobo eta arrazisten aurrean ezer esaten ez baduzu, konplize zara”.

Are herrikoiagoak

Gaur emango zaio hasiera Jaixak-ek antolatu duen egitarauari, 19:00etan zabalduko baitituzte

Bidebarrieta, 8

tel. 943 05 60 82 • www.twinselbar.com

ESTILISTAK

Fermin Calbeton, 17 - behea/ezkerra

DOLCE VITA

Tfnoa. 943 20 18 53

ESTETIKA

txosnak. Hortik aurrera, ekintzaz beteriko hiru egun izango ditugu aurretik mota askotako jarduerekin (kulturarteko pintxopotea, herri-bazkaria eta beste zenbait bazkari, jokoak, trikipoteoa, San Juan sua, elektrotzaranga, hainbat kontzertu, Mihiluze jolasa, bertsosnapoteoa, eta abar).

Jaixak-ekoek bi berrikuntza azpimarratzen dituzte aurtengo egitarauari dagokionez. “Batetik, herriko eragile desberdinekin harremanetan jarri gara, jaien antolaketaren auzolana herrikoiagoa bihurtzeko. Adibidez, Botepron-tuan Euskaraz taldeak Mihiluze jolasa antolatu du eta kultura desberdinetako elkarrekin harremana egin dugu kulturarteko pintxopotea antolatzeko”, esan digute.

Beste berrikuntzak Arrateko jaietan hartutako erabaki bati jarraipena eman nahi dio. “Sistema zisheteropatriarkala zalantzan jartzen duten sortzaileei ohol-tza eman diegu, balore eraldatzaileak gure kontzertuetan presente egoteko apustua eginez”, euren berbetan.



laz Errebalen egin behar izan zuten herri-bazkaria, arratsaldean euria egin baitzuten.

Khôl Estilistak Estaziño, 4 943 254776

Ezagutu edertasun kontzientearen kultura berri bat aktibo botaniko % 100 naturalekin

Secretos del agua

FUNEUSKADI FUNERARIA MUGICA

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Elgoibar: Kuxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasiko hilerriaren ondoan)
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Ondo pasa Sanjuanetan!

AMETSA

Gin Bar

Jaietan gozatu
Ametza Gin Bar
erara

B—*casa*—**ANA**
KA
.BAR.

Caibeton, 26

Bueltan

dira

Sanjuanak!!!

GOZATU

EGIZUZ

GUREKIN!!!

 *Kili Kili* 

GOSARIAK / PINTXOAK / EGUNEKO MENUAK
AFARIAK / MERENDOLAK / OSPAKIZUNAK...

☎ 943 20 24 01

lbarkurutze, 12



ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA

FOXTER ek bere gastronomia
bikaina etxera eramaten dizu,
igandetik ostegunera (20:00-22:30)

BAZIKAK • SANDWICHAK • BOCATAK
HAMBURGESAK • MIXIKARRAK

Plaza Barria, 6. / 943 121 255

Animatu eta doitu!!!

BULEBÚ

Jatetxea

Telf. 843 69 90 11 San Juan kalea, 19

LUSAI

ARMOZAU, BAZKALDU,
MERIENDAU ETA AFALDU LUSAI

@LUSAIETBAR

747 451 865

ERREBAL PLAZIA

 Goizeko
07.30etatik
zabalik

ondo pasa Sanjuanak
eta Sanpedroak!!

bar manuel
(JUANITO)

Urkizu, 5 943 12 16 57

BAKO LEKU Ardotegia



Ego Gain 2-4 Tel. 670 55 67 56

“Euskal Herrian gaur egungo musikarekin elkarrizketan gaude”

MATTIN ZEBERIO • Mirua



Azken urteotan aire freskoa nabari da euskal musikaren inguruan eta horren erakusle garbia da Mirua talde tolosarra. Maitane Iruñek eta Malentxo eta Mattin Zeberio anai-arrebek osatzen duten hirukoteak ahots gozoak, gitarrak, musika elektronikoa eta estilo ezberdinak tartekatzen ditu, proposamen berezi eta erakargarria eskainiz.

Miruak gaur joko du txosnagunean, 23:00 inguruan, San Juan suaren ondoren. Gau berezia izaten da eibartarrantzat, baina Mattin Zeberioarentzat ere berezia izango da, bere urtebetetzea delako eta ondo ospatu nahi duelako.

Nolako ikuskizuna espero dezakegu?

Normalean hirurak egoten gara eszenatokian eta orain arte publikatu ditugun abestiak jotzen ditugu, baina baita argitaratu ez dugun baten bat ere, sorpresa bezala. Ordubete baino zerbait gutxiago iraun ohi dute kontzertuek eta ahal duguna egiten dugu, maitasun handiz. Kontzertuetan gorabeherak edukitzea gustatzen zaigu, momentu oso lasaiekin eta kañeroekin. Orduan, oso lasai hasi eta goraka doan kontzertua izango da, oso goian amaitzeko.

Zuen musika nahiko pertsonala dela esan daiteke, nahiko identifikagarria. Hasieratik izan duzue argi zer nahi zenuten?

Gehienbat lana egiteko moduagatik etorri da horrela. Malentxok eta Maitanek zenbait abesti grabatu zituzten orain dela urte batzuk eta, Malentxoren anaia nainenez, etxean asko kointziditzen genuen. Nik neuk ere nire soinua eta kontuak nituen, eta asko gustatzen zitzaizkion soinua hauek eurek sortutako abestiekin nola uztartzen ziren ikustea. Orduan, hori izan da Mirua,

hiruron soinuen artean irten den multiplo komuna. Nahiz eta abestiak elkarren artean oso ezberdinak izan, badaukate antzekotasuna soinuaren.

Publikoaren harrerari dagokionez, aldaketa igarri duzue hasieratik gaur egunera arte?

Pixkanaka sentitu dugu publikoaren babesa. Egia da Euskal Herriko musika panorama aldatu egin dela azken hiru urteetan. Lehenengo abestiak kaleratu genuenean, elektronikarekin eta horrelako frikadekin (elektronika independenteagoa), gauza horiek arraroak egiten zitzaizkion jendeari. Orain, oster, aldatu egin da egoera. Aldaketa horren errua, neurri handi batean, Chill Mafiak du. Ez da estilistikoki antzekoak garelako, ezberdinak baikara, baina bai egin zuten txoke-terapia moduko bat non “hau ere egin daiteke” esan zuten. Harrezkero, horrelako musika egitea agian ez da errazagoa edo onartuagoa, baina bai da esperoagoa, eta inork ez dizu arraro begiratuko hori egiteagatik. Chill Mafia diot izen bat esateagatik, baina beste talde eta musikari on asko dago: Merina Gris, Verde Prato...

2021ean Gaztearen Maketa Lehiaketako Harrobia Saria jaso zenuten. Horrek zer ekarri dio taldeari?

Gazteako kontu honetan saria irabaztea garrantzitsua izan zen, baina sarira iristea are garrantzitsuagoa izan zen momentu hartan. Izan ere, ordura arte genituen ideia guztiak elkartzera bultzatu gintuen, kontzertu bat prestatu behar genuelako. Hau da, gauzak serioago



hartu genituen. Harrezkero, abiadura azkartzen eta bitzen joan da eta orain ere nabari dugu, musika berria ari garelako egiten eta, uste dut, egiten dugun musika hobe delako. ‘Oso polita’ ekoiztetxearen laguntza ondo datorkigu, kanpoko ikuspegia ematen digulako.

Sariarekin EPA sortzeko aukera izan zenuten. Nolako lana izan zen?

Demaseko lana, baina baita etxekoa ere. Kontraste hori du. Nahiko profesional entzuten da EPA, baina etxean egindakoa da, nire ordenagailu eta kaskoekin. ‘Oso polita’-k lagundu zigun, baina guk nahi izan genuen etxean egitea estudio batera joan beharrean, hori delako gure lan egiteko modua. Etxezuloak gara alde horretatik. Nahiago dugu lagun batzuk etxean geratzea eta lasai grabatzea, presio gabe.

Hainbat musikarekin elkarlanean ibili zarete (Kiliki Frexko, Malakias), bertsoak egin dituzue (Tatxers)... Ga-

rrantzitsua da musikarien artean hartu-emanaren egotea?

Orain dela bi urtera arte bazeuden musika genero batzuk Euskal Herrian publikorik ez izatea ontzat ematen genituenak. Baina, adibidez, Malakias irten da musika makineroa egiten eta, ez da jendeak onartu duela bakarrik, baizik eta desiatzen zegoen horrelako musika entzuteko. Norbait aspaldi animatu behar zen abesti batzuen bertsoak egitera eta Malakiasen formula harrrapatu du. Arrakasta izan du eta guk gozatzen dugu. Bestalde, Chill Mafiak kaleko musika jarri du mahai gainean eta bazirudien Euskal Herrian ez zegoela horretarako interesik. Orduan, existitzen zenik ere ez nekien jendea irten da bapatean eta deskubrimendu bat izan da. Horrelako gauzak egiten zituen beste herrialde batzuetako jendea ezagutzen nuen eta ikusi dut hemen ere badagoela komunitatea. Euskal Herrian gaur egungo musikarekin elkarriketan gaudela esango nuke.

IZASKUN
HARATEGIA
San Juan zerantzitsua!
 Errebal, 23 – Tel. 943 201 729

CORREDURIA COSTAMAR

AUTOAK	ISTRIPLUAK	KARNET KENTZEA
ETXEA	DENDA	ASISTENTZIA BIDAIAN
ENIZA	ENPRESA	E.P.S.V. PENTSOAK
BUZITZA	AUTONOMICOA	INBERTSIOAK
OSASUNA	AURREZPENA	IRABES JURIDIKOA
HILETAK	ERANTZ. ZIBILA	KREDITUA ETA BERBEEA

Urkieta Pasealekua, 11 943-120437 DFGV z/kiac MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com

Sanjuanetan kalera irteten da antzerkia



Aurtengo Sanjuanetan eguraldia lagun izango dugula dirudi eta herriko kaleak ekintzaz beteko dira. Ohikoa denez, kale antzerkia protagonista izango da jaietan zehar eta gure artean hainbatetan izan ditugun konpainiek eszenatoki bihurtuko dituzte kaleak.

Gaur bertan egingo dira lehen antzezlanak eta saio bikoitzarekin gainera. Izan ere, 19:00etan, Untzagan, umeentzako antzerkia eskainiko du **Tutik Klown** konpainiak, hau da, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek. **'Txaplin'** ikuskizun berria ekarriko dute Eibarrera eta "barrea eta dibertsioa" ziurtatuta daudela diote. "Diziplina anitzeko ikuskizun dotore eta bizia da, ezustekoak, aldrebeskeriak, musika eta umorea ezaugarri dituena. Eta beren istorio eta abenturen bitartez, ikusle goak munduko lanbide politenetako

batez gozatzen du: pailazoa izateaz", euren berbetan. Eurentzat, sekretua sinplea da: "Ekintza fisikoan eta komunikazio komikoan oinarritutako zirkuko umorearen baliabideak publikoarekin modu aktibo, fresko eta lotsagabean lotzen jakitea". Horrela, 60 minutu irauten duen ikuskizunean ikusle go guztiak egiten du barre hasieratik amaierara. "Barreak adin eta kultura mugarik ez duela erakutsiz, hizkuntza unibertsal bakarra umorea baita", Tutik Klown konpainiakoe diotenez.

Pailazoen ostean, 22:00etan, **Markeliñe** konpainiak hartuko du lekukoa **'Carbon club'** ikuskizunarekin. Meategiko gizon-emaumeei mirespenez eskainitako begirada zuzena da eta, autoreek diotenez, "gauaren eta ikatzaren beltzek bat egiten dute, kabaret bitxi honen atze oihal gisa". Aipatzekoa da, gainera, antzezlanak

667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

Mail

Apalategi, 4 - 20600 EIBAR • Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmal.com • www.industriasmal.com



2. saria irabazi zuela Torrejon de Ardozeko Abangoardiako Arteen Jaialdian eta hiru aldiz programatu zutela Londreseko Antzerki Nazionalean Watch This Space jaialdian.

Bihar, 23an, ez da kale-antzerkirik izango, baina 24an proposamen aipagarriarekin datorkigu **Zirkozaurre** konpainia. Izan ere, 19:00etan anbulatorioko parketik hasita, kale-zirkoa eskainiko dute. Zirkozaurre Bilboko Zorrozaurre auzoan kokatutako zirku arteen gunea da. Hamar urte daramatza martxan eta kideek zirkoa sortze-

ko, praktikatzeko, irakasteko, ikasteko eta profesionalizatzeko grina dute. Horrela, ikuskizun ezberdinak eskaintzen dituzte eta, oraingoan, kalera aterako dute zirkoa. “Gure artistek akrobaziak, malabarrak, hula-hopa eta hainbat diziplina jorratzen dituzte, kaleetan barrena ikusleak animatuz”, diote.

Domekan, hilaren 25ean, San Juan jaiei amaiera emateko, **Gorakada** eta **Artelanda** konpainiek, **Fran Lasuen** musikari eibartarrarekin batera, **‘Kermes del vermú’** antzezlan eskainiko dute 19:00etan herriaren erdigunean.



LORADENDA
LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK ERRAMUAK
Enkarguak etxera
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

PELUQUERÍA BLENDÁ
943 206331
Ubitxa, 1
Cada para Sanjuanaki!

Fisioterapeuta
18 zenbakiko
Kolegiatua
FISIOTERAPIA GUEREÑU
EIBARKO TXIKITO, 12
BEHEA ESKUMA
Tf: 943 12 14 80

PUBLI RESA
objeto publicitario
www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea
merchandising
serigrafia
lanerako erropa

Udako Ikus-entzunezkoak uztailaren 4tik 6ra

Arrate Kultur Elkarteak udako gauetarako San Andres parrokiako klaustroan antolatu ohi duen ikus-entzunezko zikloaren emanaldiak ate joka izango ditugu behin Sanjuanak eta Sanpedroak pasatuta. Ia urteroko bidetik uztailaren lehenengoko astea hartuko dute oraingoan ere eta, martitzenetik eguenera, hiru saiok osatuko dute programazioa.

Uztailaren 4koa eta 6koa gaueko 22:30ean hasiko dira. Bestalde, erdiko ikuskizuna, eguaztenekoa, arratsaldeko 20:00etan hasiko da. Eskainiko dituzten saioei dagokienez, martitzeneko diaporama ordu erdikoa izango da, eguazteneko bertso-klownena ordu eta erdikoa, eta egueneko musika eta irudiena 50 minutukoa.

“*Euskadi, Más allá de lo que puedes ver*” izango da uztailaren 4an eskainiko dutena, **Einer Rodríguez eta Daniela Agudelo**ren 30 minutuko diaporama. Lana beste formatu batzuetako Euskal Herriko argazki panoramikoen eta egungo argazkien erakusketa bat da eta, 2014ko erakusketa hartan Euskadiko turismoa Perun zabalteko aurkeztu zuten bideoarekin batera, “lurralde honi balioa ematen diogu beste ikuspegi batetik” egileek diotenez.

Uztailaren 5eko bertso-saio berezian inprobisazioa oinarri duten bi sormen alor uztartuko

dira: klowna eta bertsoa. **Beatriz Egizabal** umoregile feministak egingo du gidari lana eta bera arduratuko da, bakarrizketa laburren bidez, bertsolariei gaiak proposatzeaz. Hor izango ditu lagun



Uztailaren 5eko saioa arratsaldez hasiko da, 20:00etan, eta ekitaldi luzeena izango da hiruretatik.



Einer Rodríguez eta Daniela Agudeloaren irudiek jantziko dute martitzeneko saioa.



Kultur eskainiko duen hirukoan diaporama bat, bertso-saio berezia eta musika egitasmopertsonala izango dira protagonista

Oihana Bartra, Miren Artetxe eta Oihana Arana, 90 minutu inguru iraungo duen atalean.

Uztailaren 6ko “*OLOR eta Dordoma*” Jokin Azpiazuren musika egitasmopertsonalena da eta **Maialen Belaustegiren** irudien laguntza du. Ikus-entzunezko bidaia bat da, egungo gizakiaren kondizio kontraesankor eta, aldi berean, gardenaren inguruan. Eibarko emanaldian bidaia berezia proposatuko dute, **Ander Barriusoren** laguntza teknikoarekin: bertan OLOR-en bi diskoetako kantuak forma berrietan agertuko dira, hala nola inoiz erabili gabeko soinu eta testu propioei eta inprobisazioei lekua eginez.

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **LUKEN**, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **JON!** Martitzenian 7 urte beteko dozuz-eta! Asteburuan hasiko gara ospatzen, txapeldun! Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **MAREN** Txurruka Sampayo, gaur 6 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **LUKA** Lopez Amas, hillaren 24an 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat zure arreba Noa eta zure lehengusu Danel eta Anerren partez.



Zorionak, **AIORA**, hillaren 15ian 8 urte bete zenduaz eta! Segi beti bezain alai izaten. Musu haundi pila bat, etxeko guztien partez!



Luis M^a Osoro Arregi

1946/10/30 – 2023/06/08



Agur, goraintzi, Luis Mari senar, aita, aitona formala, agur honetan Maribel lehen, Leire, Asier bezala, bestalde zure arreba bakar bihargin bezain apala gehiago ere agertu gara lagun kuadrilla zabalac maite zenuen mendiko haize ta Orioko kresala bizitzak, baina gorabeherak ta ugari martingala Ama Lur onak bere aitzoan gozoro gorde zaitzala.

TRUNBOI

- ASKO MAITE ZAITUEN ZURE FAMILIA -

Carlos Arrazola Galan

1939/05/07
2023/05/25



Eskerrik asko
herria egiteagatik

EIBARKO  sortu



Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. 943031363.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 624910331.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko ekainean eta uztailko lehenengo astean. 646057965. Miren.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) Eibar eta inguruan. Orduka. 602490595.
- Neska eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. 651432384.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 641988643.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. Externa. 602398328.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. 676553093.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 632881068. Jessi.
- Gizona eskaintzen da pintore, peoi... lan egiteko. 631509262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxeak garbitzeko. Orduka. 667060292.
- Emakume euskalduna (goi mailako teknikaria HHn eta EGArekin) eskaintzen da umeak zaintzeko. Ekainean eta uztailko. 660522271.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Esperientzia. 626407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 642577823.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Neska eskaintzen da kamareira jarduteko, garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 622023451.

4.2. Langile bila

- Martxan dagoen taberna eskuragarri. Baldintza onak. 645109141
- Dendaria behar da Eibarko moda-denda batean. Jornada erdiz (goizez). Bidali curriculum-a: eibardenda@yahoo.com
- Aho eta hortzetako higienista behar da. hortzklínika.06@gmail.com

- Administratibo komertziala behar da arratsaldean lan egiteko. Bidali curriculum-a: akomertziala@gmail.com
- Pertsona behar daidazkari-lanak, errekaduak etabar egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskerak

- Pertsona behar da DBH3ko Matematika eta Fisikako klaseak emateko irailetik aurrera gure etxean. 627307168. Naiara.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Binirozko diskoak, LPak eta singleak erosten ditut. 688624326.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA



ESCUELA
OFICIAL
DE IDIOMAS
DE EIBAR

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

Matrikula:
Irailaren 1etik 18ra

On-line
IKASGUNEA
plataformaren bitartez



Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

DEUTSCH-ENGLISH-EUSKARA-FRANÇAIS

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK
hizkuntza guztietan:
Egun bat eskolan + lan
pertsonala Moodle
plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

Agiri ofiziala
eskura ezazu!

Otaola hiribidea 29
eoieibarheo@gmail.com
943899275

eoieibarheo



www.eoieibarheo.hezkuntza.net





EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

San Juan jaietan

IRRIBARRERIK POLITENA

erakutsi ezazu

- ◆ Odontologia orokorra
- ◆ Haur odontologia
- ◆ Hortz zuritzea eta estetika
- ◆ Ortodontzia
- ◆ Protesi finkoa eta kentzekoa
- ◆ Kirurgia eta inplanteak



San Agustin Kalea, 4 behea ezkerrean
20600 Eibar (Gipuzkoa)

943 537 076 · 688 884 808
info@eibarclinicadental.com

